



Azpeitiko Udala

NAGORE ALKORTA ELORZA, Azpeitiko Udalaren Alkate-Udalburuak.

Azpeitiko Udaleko eta bere erakunde autonomiadunen egonkortze-prozesuak zuzentzeko eta kudeatzeko eskumena duen zinegotzi eskuordetuaren 2022ko abenduaren 16ko ebazpen bitartez, administrazio berezia eskalako teknikari azpieskalako Kirol Teknikari plaza bat merezimendu-lehiaketaren bidez hornitzeko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorrak eta espezifikoak onetsi ziren (2022ko abenduaren 30an Gipuzkoako aldizkari Ofiziala, 247zk.).

Iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren, 20/2021 legearen 6 eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako hautaketa prozesuan, eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatutako lankidetzeta hitzarmenaren baitan, 2024ko apirilaren 8an jaso zen merezimenduen behin betiko balorazioa eta azken kalifikazioa.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, ondoren adierazten den pertsona proposatzen dio Azpeitiko Alkateari Kiroletako Teknikari plazan, funtzionario gisa izendatzeko:

DEIALDIA/CONVOCATORIA: OP01/2023-LEHIA 07 KIROL TEKNIKARI PLAZA- PLAZA DE TÉCNICO/A DE DEPORTES OP01/2023- LEHIA 07	
Funtzionario izateko proposamena / Propuesta de acceso a la condición de funcionario/a	
Zk./ Nº	Izena eta abizenak / Nombre y apellidos
1	NEREA LOPETEGUI LULUAGA

Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatutako pertsonaren izendapena egin aurretik, hautaketa prozesua arautzen duten oinarrietako 14. oinarri orokorraren baitan, Udalarri dagokio deialdiko plazara sartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzea izendapena egin aurretik. Horretarako honako dokumentazio hau aurkeztu behar du izangaiak **gehienez ere 2024ko maiatzaren 10a baino lehen** Azpeitiko Udaleko lehen solairuan dagoen Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ).

- Eskabidearekin batera aurkeztutako agirien orijinalak (titulazioa) aurkeztu beharko ditu, Herritarren Arreta Zerbitzuan kopia egin eta hau konpultsatu ahal izateko.
- Honekin batera, kargu publikoak betetzeko ezgaitua ez dagoela eta diziplina-espediente bidez Administrazio Publikoaren zerbitzutik kendu ez dutenaren zinpeko aitortpena (I. ERANSKINA) aurkeztu beharko du titulazioarekin batera
- Herri Administrazioen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bateraezintasun-arrazoiren batean sartuta ez egotearen zinpeko aitortpena (I. ERANSKINA) aurkeztu beharko du titulazioarekin batera.
- Lanpostu honetarako izendatua izan aurretik, izangaiak sendagile-azterketa egin behar du, Udalak adierazitako moduan. Ondoren, lanpostuaren funtzioak egiteko gaitz edo ezintasun fisikorik ez izatea frogatzen duen sendagile-agiria jaso beharko du Udalak.

Azpeitian, 2024ko apirilaren 12an. Alkateak



Azpeitiko Udala

I.ERANSKINA

ZINPEKO AITORPENA

Nik.....
.....
.....
N.A.N. zenbakia.....duenak

Zinpeko aitormena edo agindua egiten dut inongo administrazio publikotik ez nautela zigor-
espediente baten ondorioz egotzi, ez naizela herri-jarduerarako ezgaitu, eta ez nagoela Herri
Administrazioetan jarduten duten langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984
Legean aurreikusitako ezgaitasun eta batera-ezintasunaren legezko inolako kausatan sartuta.

Azpeitian, 2024ko

Sinadura